



Aldacrak:
Ahozkoa: Otsáitte / Otséitte



43° 10' 32"

2° 35' 25"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

"... la casa principal de Ocheita... en la barriada de Eitua, en Berriz, que es de dos viviendas y se compone en su piso bajo de portalada con arcos, habitaciones y cuadras; otro alto también con habitaciones y desban; comprende con inclusión del nuevo adiuamento antusano o zaguan ciento setenta y nueve y medios estados, equivalentes a seis áreas y ochenta y tres centiáreas..."
DJE 5/72 or. (1882)

Egun, Abadiñotik Ondarrura doan errepideak banatzen ditu *Otsaita* etxeak. Jatorrizko etxea dugu honako hau, eta haren arnagarekin edo eranskinarekin batera jasotzen da XVIII. mendeko dokumentazioan. Hala, *Ochaita* agertzen zaigu, 1704ko Bizkaiko su-errodan, eta *Ochaita de Suso*, berriz, 1746koan, beheko partean kokatzen den *Otsaitabeitia* etxetik (**Ikus Otsaitabeitia**) bereizteko. Aurrerantzean, aldaketa gutxi jasan ditu izenak: XVIII. eta XIX. mendeen hasieran, *Ochaita* (1825, PE/1825) aurkitzen dugu, eta *Ochaitas* moduan jasotzen da etxe multzo osoa 1859ko Berrizko Udalak egindako izendegian. Hemeretzigarren mendearen bi-

garren erdian, bestetik, *Ocheita* (1866, DJE, 2/ 41. or.) eta *Otzeita* (1892, DJE, 6/ 102. or.) erak aurkitzen ditugu. Harrezkero, aldaera hori mantenduko da XX. mendean zehar eta gaur egun arte: *Oxeita* (1905, BUA, 40. or.) eta *Otzeita* (1967, BUA, CE). Ahozkotasunean, berriztaren artean, *Otsáitte* eta *Otséitte* formak erabili izan dira errepide alboetan aurkitzen diren etxe biak izendatzeko.

Baserri etxe ederra, bizitza bikoa, 1799an jaso, nahiz eta harlandu zaharragoak dituen osteko fatxadaren oinarrian. Hala ere, nabarmenena bere fatxada nagusia da, guztiz era simetrikoko atondua, indarra jarriaz erdialdean.

toponimia

Gaztelanian ez daude euskaran dauden soinu batzuk eta horren ondorioz leku izen batzuen idazkera aldatu egiten da denboran zehar. Gure kasu honetan 1704tik 1892ra arteko aipuetan Ochaita ageri da eta azken urte horretan, berriz Otzeita. Aldaketa honen arrazoia erraz ulertzen da gaur egungo ebakerak Otzaita eta Otzeita direla baldin badakigu. Jatorrizko soinu ts zen eta horregatik eskribauek ch idatzi zuten, gero, bizkaieraz soinu hori galdu zen eta tz ahoskatzen



Otsaita, Guregipuzkoa.net/Portada de la casa solar Oseirza (Otxaita) © CC BY-SS: Ojanguren, Indalecio.

Ikusgarriak dira atarteko sarrerako bi arkuak. Gainean kokatu zuten, erdian, familiaren armaria inskripzio argigarri batekin, eta bere bi alboetan, leihoak, dena harlanduz egina. Gaineko solairuan, beste bi leiho luze, beheko leihoekin lerrokatuta eta balkoi batekin elkartuak. Eta gorago, ganbaran, bi bao huts. Aldamenetako ardatzetan, leihoak kokatu zituzten, txikitu egiten direnak gora joan ahala. Behekoak, kanpo aldera, burdinazko errejak dituzte.

Etxea harlangaitzaz jaso zuten, ohiko kantalak eta leiho ertzak ezik, baita arku gaineko leihoen eta armariaren arteko horma ere. Izan zuten asmoa garbia zen, armariaren aldea indartu gura izan zutelako, beste guztiarekin egin zuen kontrastea areagotuz, gogoan izaten badugu jatorriz harlangaitza estalita eta zurituta zegoela. Bi isuritako teilatua dauka, egurrezko besoek eutsitako hegal zabalekoa.